

|                                                                                   |                                                                            |                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|-------------------|
|  | <b>IES Federico Baraibar BHI</b><br><b>EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA</b> | <b>DBH 2</b>      |
|                                                                                   |                                                                            | <b>PENDIENTEA</b> |
|                                                                                   |                                                                            | <b>OHIKOA</b>     |

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_ DATA: \_\_\_\_\_

EMAITZA: \_\_\_\_\_ / 114 p =



**1. Hau zure katua da, baina galdu egin duzu. Orain, iragarki bat idatzi nahi duzu egunkarian bere datuak emateko, ea norbaitek aurkitzen duen. Horretarako, asmatu zure katuaren datuak, galdera hauei erantzunez: (9 p)**

Has perdido a tu gato y quieres escribir un anuncio para el periódico, a ver si lo encuentra alguien. Para eso, invéntate datos sobre tu gato, respondiendo a estas preguntas:

- NOLA du izena?
- ZENBAT urte ditu?
- NONGOA da?
- NON bizi da?
- NOLAKOA da?
- NOIZ DA bere urtebetetzea?
- ZER GUSTATZEN zaio egitea?
- ZER egiten du egunero?
- ZER jaten du?



**2. Bete taula hauek, aditz laguntzaileak orainaldian eta lehenaldian idatzita: (27 p)**

Rellena estas tablas, poniendo los auxiliares en presente y pasado.

| NOR         |       |       | NOR-NORK    |            |         |            |          |
|-------------|-------|-------|-------------|------------|---------|------------|----------|
| IZAN ADITZA |       |       | UKAN ADITZA |            |         |            |          |
|             |       |       |             | Orainaldia |         | Lehenaldia |          |
|             | orain | lehen |             | singularra | plurala | singularra | plurala  |
| Ni          |       |       | Nik         |            |         | nuen       |          |
| Hura        |       |       | Hark        |            |         |            |          |
| Gu          |       |       | Guk         |            |         |            |          |
| Zu          |       |       | Zuk         |            |         |            |          |
| Zuek        |       |       | Zuek        |            |         |            |          |
| Haiek       |       |       | Haiek       |            |         |            | zituzten |

| NOR-NORI |            |           |       |            |             |
|----------|------------|-----------|-------|------------|-------------|
|          | Orainaldia |           |       | Lehenaldia |             |
|          | singularra | plurala   |       | singularra | plurala     |
| Niri     |            |           | Niri  |            |             |
| Hari     | zaio       |           | Hari  |            | zitzaizkion |
| Guri     |            |           | Guri  |            |             |
| Zuri     |            |           | Zuri  | zitzaizun  |             |
| Zuei     |            | zaizkizue | Zuei  |            |             |
| Haiei    |            |           | Haiei |            |             |

**3. Amaitu esaldiak, taulako aditz laguntzaileak lehenaldian erabiliz: (8p)**

Termina estas frases, utilizando los auxiliares de las tablas en pasado.

1. Gu menditik etorri \_\_\_\_\_.
2. Zuek Anarekin egon \_\_\_\_\_.
3. Nik azterketa gainditu \_\_\_\_\_.
4. Zuek liburua irakurri \_\_\_\_\_.
5. Guk opariak ekarri \_\_\_\_\_.
6. Zuk sagarrak jan \_\_\_\_\_.
7. Guri txokolatea gustatzen \_\_\_\_\_.
8. Haiei betaurrekoak galdu \_\_\_\_\_.

**4. Idatzi esaldi hauek ezezkoan. Escribe estas frases en negativo. (10p)**

1. Bazkaldu aurretik hortzak garbitzen nituen.

\_\_\_\_\_

2. Hondartzan bainatu ondoren izozkia jango dute.

\_\_\_\_\_

3. Institutuan lan gutxi egiten zuen.

\_\_\_\_\_

4. Azterketa guztiak gaindituko ditugu.

\_\_\_\_\_

5. Niri ibaian bainatzea gustatzen zait.

\_\_\_\_\_

**5. Osatu esaldiak, orainaldiko eta lehenaldiko NOR-NORI aditz laguntzailearekin. (10p)**

Completa las frases, utilizando el auxiliar NOR-NORI en presente y pasado.

1. Zure lagunei ez \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_ babarrunak gustatzen.
2. Naroari orriak lurrera erori \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_.
3. Zuei Euskara ikastea gustatzen \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_.
4. Gure amari poltsa etxean ahaztu \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_.
5. Guri etxeko lana egitea ahaztu \_\_\_\_\_ / \_\_\_\_\_.

6. **Konparazioak:** Egin konparaziozko esaldiak, **adjektibo ezberdinak** erabiliz, adibidean bezala: (12p) Haz frases comparativas utilizando **distintos adjetivos**, como en el ejemplo.

Adibidea: *Zebra eta otsoa*

- *Zebra otsoa baino lodiagoa da.*

- *Otsoa animaliarik beldurgarriena da.*

1. Kukua eta ostruka

-  
-

2. Sugea eta txakurra

-  
-

3. Zezena eta katua

-  
-

4. Dortoka eta gepardoa

-  
-

7. Hiztegia. Zein dira **lanbide** hauek? ¿Cuáles son estas profesiones? (8p)



**8. Irakurri testua eta erantzun galderei. Lee el texto y responde a las preguntas. ( 15p)**

**LAMIA**

*Euskal lamiak leize-zuloetan, iturrietan eta erreketan bizi dira. Itxura polita dute, baina ahate-hankak dituzte. Lamiak leize-zuloan izaten ditu: altxorrak, urrezko orraziak... Eguna ilea orrazten pasatzen du, baina, batzuetan, gosea ere izaten du. Janaria ematen badiozu, gauean zure lanak egiten ditu: etxeko lanak, baserriko lanak...*

Lamia emakume itxura duen gizakia da. Kondairaren arabera, erreka ondoan arropa garbitzen eta orrazten aritzen da. Nekazariaren batek erreka ertzean janaria uzten badio, gauean nekazariari lanak egiten dizkio.

Egun batean, Errekamari lamia bere lagun Martintxo bisitatzera joan zen. Joan baino lehen, bere urrezko orrazia harri baten azpian gorde zuen.

Bi emakume gaiztok herritik bota nahi zuten Errekamari. Errekara joan ziren, baina ez zuten Errekamari topatu. Errekamariren orraziaren bila hasi ziren, alde batera eta bestera, baina ez zuten ezer aurkitu. Orduan, Errekamariri min egin nahian, errekara zaborra bota zuten, eta erreka zikin-zikin geratu zen.

Hurrengo egunean, Martintxo Errekamari bisitatzera joan zen errekara; baina ez zegoen han. Martintxo triste-triste itzuli zen etxera.

Badakizue! Errekamari Euskal Herriko edozein erreketan egon daiteke.

Beraz, ez bota zaborra errekara!



1. Zer da lamia? \_\_\_\_\_
2. Non egoten da? \_\_\_\_\_
3. Zeren truke egiten du lan? \_\_\_\_\_
4. Non ezkutatu zuen urrezko orrazia? \_\_\_\_\_
5. Zer bota zuten bi emakume gaiztoek errebara? \_\_\_\_\_
6. Martintxok aurkitu al zuen Errekamari? \_\_\_\_\_
7. Non ote dago Errekamari? \_\_\_\_\_

**9. Idazlana. Zein da zure asteko egunik gustukoena? Azaldu zer egiten duzun, **normalean**, egun horretan. 40-60 hitz. (15 p)**

¿Cuál es tu día de la semana preferido? Explica qué sueles hacer, **normalmente**, ese día. 40-60 palabras.

| Zuzentzeko irizpideak. Criterios de corrección.             | BAI | EZ | BATZ. | Punt. |
|-------------------------------------------------------------|-----|----|-------|-------|
| Nor eta Nork kasuak ondo erabiltzen ditu                    |     |    |       | 1,5   |
| Izan aditza ondo erabiltzen du testu osoan                  |     |    |       | 3     |
| Ukan aditza ondo erabiltzen du testu osoan                  |     |    |       | 3     |
| Aditz aspektua ondo erabiltzen du                           |     |    |       | 1,5   |
| Juntagailuak erabiltzen ditu                                |     |    |       | 1,5   |
| Hitzak ondo deklinatuta daude                               |     |    |       | 1,5   |
| Hiztegi aberatsa edo postposizioak erabiltzen ditu          |     |    |       | 1,5   |
| Esaldiak sintaktikoki zuzenak dira                          |     |    |       | 1,5   |
| <b>OHARRA:</b> Testua erabat nahasia da eta ezin da ulertu. |     |    |       | -15   |